

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ELTZIEGOKO UDALA

Behin betiko onestea 2/2020 kreditu gehigarriaren espedientea

Toki Erakundeen Aurrekontuen 3/2004 Foru Arauak 34.3 eta 15. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz, 2/2020 kreditu gehigarriaren espedienteari hasierako onespena ematen dion erabakiaren aurka inolako erreklamaziorik edo oharrik aurkeztu ez denez, espediente hori behin betiko onesten da, honela:

PARTIDA	KONTZEPTUA	EUROAK
161.210.01	Urak eragindako kalteak konpontzea, sakonera	50.000,00
920.226.05	Kalte-galerengatiko kalte-ordainak	18.000,00
Batura, guztira		68.000,00

Zenbateko hori baliabide hauen bidez ordainduko da, eta beraz, espedientea parekatuta ageri da; hau da, defizitik gabe:

PARTIDA	KONTZEPTUA	EUROAK
870.01	Diruzaintzako gerakina gastu orokorretarako	68.000,00
Batura, guztira		68.000,00

Udal honetako aurrekontu orokorraren aldaketa expedientea behin betiko onesten duen erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian. Horretarako, bi hilabete izango dira iragarki hau argitaratzen denetik aurrera.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Eltziego, 2020ko ekainaren 9a

Alkatea

LUIS ALDAZABAL RUIZ DE VIÑASPRE